

Nafarkaria


• ostirala • 1999ko uztailearen 30a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Larraun • Plazaolaren Bide Berdea egiteko lanean ari dira oporretan dauden gazte ugari.

Iñaki Fernandez Iturbide • «Nire 'hobby' hau lanbide bihurtzeak gosez hiltzea ekarriko lidake».



Arpanaren kontu ahaztuak

Arostegiko Peio eta Manuel Kañamares anaiek aitonaren lanbide izandako zerra herri kirolen mundura eraman dute. Bi anaiak

Nafarroako trontza txapeldunak dira, eta duela sei urte baserriko mandioko hauts artetik ateratako zerra zaharra herriz herri darabilte azken lau urteetan.

Larraun •

Oporretan lanean aritzeko asmoz

Euskal Herriko eta kanpoko ehun gazte ariko dira lanean egunotan

Plazaolako Bide Berdea egiteko lanetan laguntza txiki bat eskaini asmo dute gazte horiek. Aisialdia probetxuzko zerbaitetan erabili nahian, ia gehienentzat ezezaguna zen txoko horretara etorri dira uda honetan.

A SPALDIDANIK ARI DA ENPRE-
sa bat Plazaolako Bide Berdea berreskuratzeko lanetan, buru-belarri. Egun, Uitz parean ari dira, bertako tunelaren ingurukoa omen da eta zatirik zailena. Hala ere, uztailean eta abuztuan laguntza paregabea dute eguneroko eginbeharrean. Gazteei ilusioa ez zaie falta. «Gu gustura aritzen gara, baina gero langileak iristen dira, eta bost minututan egiten dute zuk goiz guztian egin duzun beste, eta lurra-
ren parean geratzen zaizu morala». Hala zioen behintzat Maikak. Maika Balearretako neska gazte bat da. Hamasei urte ditu, eta auzolandegi batean parte hartu duen bigarren aldia da. Larraun non zegoen ez zekien, baina bertako ingurugiroak bultzatuta hautatu omen zuen Larraun. Uztailean 40 gazte bildu dira Lekunberriko eskolan. Bertan lo, bazkaldu eta afaldu egiten dute. Gainerako orduak, kanpoan ematen dituzte. Goiz partekoak, lanean, eta arratsaldekoak, berriz, ingurua ezagutzen. Denak 16 urtetik 25era bitar-

tekoak dira, horixe baitzen auzolandegi horretan parte hartu ahal izateko jartzen zitzaizen baldintza bakarra. Haien egonaldia astelehenean amaitu zen. Orain, nazio-artetik iritsitako 55 gazteko beste talde batek hartuko die lekukoa. Horiek jarraitu beharko dute orain artekoek hasitakoa. «Hemendik urte batzuetara -esan zigun Juan Pablok- itzuliko gara eta esan ahal izango dugu zuhaitz hori geuk landatu genuela». Izan ere, gazte horiek argi dute beraiek egindakoa obra guztiaren zati txiki-txiki bat baino ez dela. Hala ere, balantzea baikorra da oso egonaldiaren bukaeran egin dutena. «Hasiera batean, badirudi udan lan egitea ez dela planik aproposena, baina ez da hainbesterako. Jende berri ugari ezagutzen duzu, eta harremanak, elkarrekin bizitzearekin estutzen badira, are gehiago lanean ere elkarrekin arituz gero». Hala azaldu zigun Jeru izeneko neskatxa iruindar batek. Juan Pablok, ordea, -Palentziatik etorria bera- akats txiki bat aurkitu dio



Lekunberriko tren geltokian hasten da Plazaolako Bide Berdea.

• MIKEL SAIZ

esperientzia honi: «Pena da Iruñetik hain gertu egon eta sanferminetara joaten ez utzi izana». Auzolandegiko zuzendari Maria Luisak, ordea, argi du zergatik ez ziren Iruñera joan: «Gazte batek uda igarotzeko auzolandegi bat aukeratzen badu, pentsatzekoa da uda

jai eta antzeko juergetatik at igarotzeko beste modu bat aukeratu duela. Bakoitzak badaki zertara etorri den hona. Juerga egin ahal izateko badaude beste plan batzuk».

Turismoa egin eta lan batzuk ikasi omen daitezke auzolandegi hauetan. Horre-


16 eta 25 urte arteko gazteak bildu dira uztailean Lekunberriko eskolan Plazaolako Bide Berdea egiteko lanetan laguntzeko. Goiz parteko orduak lanean ematen dituzte, eta arratsaldekoak, berriz, ingurua ezagutzen

gatik, Nafarroako Gobernu-ko Gazteria Sailak, urtero, eskaintza zabala antolatu ohi du, gazteek udan lana non egin aukeratu ahal izan dezaten. Plazaolako Bide Berdea egin den bigarren auzolandegia da. Iaz eginiko-arekin Plazaola Partzuergo Turistikokoak eta Lekunberriko Udalekoak oso gustura geratu omen ziren. Horregatik, oraingoan, partehartzailen kopurua zabaltzea otu zaie. Orain ingelesez edo frantsesez azaldu beharko diete nolakoa zen gure Plazaola tren zaharra. Sanferminetan bertako kanpineko jaun eta jabe egin ziren australiarren ondoren, atzerritar gehiago etorriko dira, beraz, gaur. Horiek, ordea, ez Navarriako iturrira, Plazaolako Bide Berdera baizik. Eta, gainera, lanerako asmoz.

→ Urko Aristi

denbora pasa

XAMAR



Txuri-beltzako mundua

G oartu gabeen badae denbora. Badaki-
gu zer tresna berri montioa ekarri dau-
gun akatzera daen mendeak, zernahi
lanen egiteko, bizitzaren errazteko anitz edo
gehienak. Belaroan gaudelarik, konparazione
batera, belazen alor gaitza arratsalde eskas
batez bururaturik -moztu, bildu, lotu, kargatu
eta erman- ikusten dugula oraiko makinaria dela
medio, iragan denbora bateko bizimoldea heldu
zaigu oroimenera, lana erreposkiago egiten
zenekoa: landara oinez joan, tailaz moztu, bitar-
tean elekan, kantan agian, itzalean bazkaiteko,

lo kuluxka bat, lanari lotu berriz eta iduzkia sar-
tzerakoan etxera, belazen mandreak mando
gainean.

Aisa hola errateko, olerkariendako polit, baina
ez ezaiezu galdegin lan molde hori bete-betean
bizi izan zutenei. Orain bai ongi! lehen beti eneatu-
rik alor eskas bat ezin eginez gizon-emazteki
zenbeitek aste batean edo, auria egiten ote; orai
batto aski lan guziaren akatzeko. Bego pasturik.

Alferrik itzuli-mitzulian ibiltzea ez baitira buel-
tatuko lehengo denborak; orai garaiko argazki
zaharretan irudi haiek ikus ditzakegu bakarrik,

egun hauetan bezala Nicolás Ardanazek ikus-
gai daudela izaban, duela berrogei bat urteko
gauren bazterrak erakutsiz.

Halere denborari ebatsi xtant hoiek ikustera-
koan ezin egon halako bihotz zimiko bat sentitu
gabe: Ardanaz txuri-beltzako (erranahi guzie-
kin) iragan mundu hortan zer bait bada, egungo
kolorezko munduan galdu dena, betikoz galdu
ere seguraski.

Ez galdegin eni zer den, ez baitakit adiaraz-
ten; baina baldin eta irudi zaharrei so eginez zuk
ere sentitu baduzu, badakizu zertaz ari nizen.

Altsasu •

Eskaintza zabala Nafarroako Jaialdien egitarauan

Trikitixa eta akordeoiari buruzko jardunaldiak izan dira Altsasun

Hogeita hiru trikitilari aritu dira Altsasun egindako trikitixa lantegian. Akordeoi diatonikoari buruzko lantegia Nafarroako Jaialdien egitarauaren barneko ekitaldi bat izan da. Aste guztian Akordeoi diatonikoak Katalunian ehun urtetan zehar erakusketa ikusgai izan da Gure Etxean.



Akordeoi diatonikoari buruz Altsasun egindako lantegian parte hartu duten batzuk.

• AMAIA AMILIBIA

ATZOKO TRIKITIXA JAIAREN ONdoren, gaur gauean Madagaskarko Regis Gizavo abeslari eta akordeoilaria entzuteko parada izanen da Zelandin. Bihar, berriz, Argentinako Tango Quattro taldearen eskutik, tango musika zoragarria izango da 22:00etan.

Azken urteotan bezala, Nafarroako Jaialdiei esker mun-

duko musika mota ezberdinekin gozatzeko aukera izaten dugu Altsasun. Aurten, gainera, kontzertuez landara, erakusketa, trikitixari buruzko lantegia eta hitzaldi eta mahai-inguruak ere izan ditugu. Hori gutxi balitz bezala, kontzertuak doan dira. Hala, Argentina, Madagaskar eta Euskal Herriko puntako trikitilari eta akordeoilariak ikusteko parada izanen dugu.

Astelehenean 30 lagun inguru izan ziren Joseba Tapia-

ren *Trikitixa vs. Jaungoikoa* hitzaldia entzuten. Jakinmin handia piztu zuen. Asteartean, berriz, mahai-inguru bat izan zen: *Akordeoi diatonikoaren gaurko egoera tradiziozko musikan*. Bertan, Artur Blasco kataluniarra, Antonio Rivas kolonbiarra eta Imanol Agirrek (Kepa Junkeraren liburua koordinatzen ari den laguna) parte hartu zuten. Horietaz landara, Enrike Zelaia Altsasuko akordeoilariak ere parte hartu zuen.

Trikitixa lantegia

Kepa Junkerak eta Ibon Koteronek zuzentzen duten Infernuko Auspoa elkarteak irakasleak Altsasuko trikitixa lantegian izan dira. Junkerak atera zuen metodoa gertutik ezagutzeko parada izan dute hogeita hiru trikitixa ikasleek. Hiru mailatan bereizi dituzte: goi mailakoak, partiturak irakurtzeko gaitasuna dutenak eta hasi berriak.

→ Amaia Amilibia

herri aldizkariak
Eduarne Elizondo

ADI Sakana

Guaixe hilabetekariaren azken zenbakiak 1923. urtean Etxarri-Aranatzen egin ziren Euskal Jaiak aztertu ditu *Euskararen txokoa* izenburuko sailean. Imanol Arratibel eta Castillo Suarezekin sinatutako artikuluak dioenez, «1923ko maiatzean Euskal Jaiak antolatzen zituen Euskaltzaindiak Etxarri-Aranatzen. Egun hartan euskara azterketak egin zitzaizkien Sakanako haurrei eta sariak banatu. Horietako bat Fernanda Ganboa arrazuarrak jaso zuen». «Garaiko egunkariei aditzera ematen dutenez, euskararen erabilera sustatzeko festa izan zen, eta Etxarriko jendea

ez ezik, Sakana guztikoa ere bildu omen zen ekitaldian. Euskaltzainditik Arturo Campion eta Damaso Intza izan ziren eta Nafarroako Diputazioetik Lorenzo Oroz eta Ignacio Baleztena. Etxarriko Udalak bazkari batera gonbidatu zituen bai euskaltzainak eta bai diputatuak». «Umeei ahozko zein idatzizko azterketak egin zitzaizkien eta hoberenei aurrezki kartilak eta liburuak banatu zitzaizkien. Neskei dagokienez, Fernanda Ganboa arrazuarrak sarietako bat lortu zuen. Azterketaz gain, abestiak, bertsolariak, irrintziak eta abar izan ziren Euskal Jailetan».

Bestalde, Urdalurko urtegiaren arazoa aztertu du **Guaixe**-ko azken zenbakiak: «Arazoa nondik, nork edota zerk sortu duen ez dakigun arren ekainaren 5etik 12ra bitartean Urdalurko urtegiaren uraren % 80a hustu zen. Dirudienez isuri ekologikoa bideratzeko erabiltzen den hodia matxuratu zen eta isuria ohikoa baino handiagoa bilakatu zen uraren indarrak eraginda. Honen guztia- ren ondorioz, ohikoa ez zen itxura hartu du Urdalurrek ekainean: besteak beste, azken 4 urteotan urpean egon diren bordak primeran ikusteko aukera izan da».



**ur dai
aren
mintzoa**

Xabier Larraburu

Natura zoragarri hori

Adiskide baserritarrek ardiez eta estresaz hitz egin zidaten eta oraindik ere harrituta segitzen dut. Ez nekien nik estresaz jota hil zitekeenik ardi bat! Estresa hitza aipatzen zuten baina izuaz ari gara. Nonbait, ardi saldoa izutzen bada bihotzekoak jota hiltzen ahal dira ardiak. Gero, txerriak ere estresatuz gero segituan seko gelditzen direla gehitu zuten. Guztiz harrituta nengoela beste adiskide batek esan zuen hartzak ere izuaz hil egin direla, estresaturik. Horrela gertatu omen zen Galizian, hemen bezala kontrolatu nahi zuten hartz baten atzetik ibili zirenean. Aibalaostia! Hartzak ere? Gero, nire koinatuak komentatu zidan Txantreako kanarioak ere, mirua kaiolatik gertu ikusten dutenean, izuak jota hiltzen direla. Baina baina... zer da hau? Baina zer Natura txepel dugu? Dokumentaletan ematen du (ematen du!) animaliek heriotzari oso modu estoikoan aurre egiten diotela. Esate baterako, antilopeak. Zera... lehoiak antilope bat harrapatu eta gainontzeko beste guztiek belarra jaten segitzen dute oso modu lasaian. Ez ba! Ez nonbait! Teletakakoak ongi ordaindutako estrak izango dira! Dena da faltsua! Dena guzurrak! Oihanean zuhaitza erortzen denean zenbat eta zenbat ez dira ba hilko? «Zer izan da hori!»-esango dute hartzek arnasestuka, eta gero: «Aaa!», pof, bihotza, akabo. Nork esaten zuen Natura gogorra zela? Balentria handiagoak ikusiak ditut nik haurtzaindegietan (plastilina ahora eta beste!). Eta Naturaren perfekzioaz ari garela, zer esango dizuet? Besikula, apendizkea eta horrelako organoak kentzen dituzte medikuek eta HOBETO BIZI GARA! Egunen batean mediku ausart batek, zeostias, bihotza bera ere kenduko dio bati, eta, bizirik segitzen duela ikusita Nobel saria eman ondoren, esango dugu: ze perfekzio ta ze demontre? Dena sobran dago! Zergatik ditugu gizonezkook titiak? Pezoia, bai. Zertarako? Zenbat apaingarri ez dituen jarri naturak gure gorputzetan? Deustarako balio ez dutenak! Natura zoragarri hori... bai zera! ●

Zerra: kirol bihurtu nahi duen lanbide galdua

Kañamares anaiek zerratokia berriz muntatu dute herri kiroletarako

Enborretatik oholak ateratzeko lanbidea zen orain Kañamares anaiek herri kirolen mundura gerturatu duten lan bitxi hau. Euren aitonak erabili ohi zuen zerratokia, eta duela sei urte berriz erabiltzen hasi ostean, Nafarroako trontza txapelkun hauek bi urte igaro zituzten teknika ikasten, eta gaur egun, beraien erakustaldietako kirolrik bitxiena bilakatu da.

Urte askotxo pasatu dira jada Peio eta Manuel Kañamaresen aitonak Arozte-giko Gartxitorena baserriaren atariko zerratokia desmuntatu eta etxeko mandioan gorde zuenetik. Haritza, pagoa eta makala erosi ostean, oholak egin ohi zituen Kañamares-tarren aitonak, baina lanbide hura zaharkituta geratzen ari omen zen nonbait, eta horrelakoetan gertatzen den legez, atal guztiak han gelditu ziren hautsez estalita mandioan, handik urte batzuetara beste batzuek lehengoratzeko zain-edo. Duela sei urte Nafarroako trontza txapelkunak diren bi anaia hauek Arribeiko artisau batek muntatu zuen zerratokia bitxi bat ikusi zuten telebistan, eta ganbaran gordetako egur eta burdin puska haiek gogoratu eta zitzatzen orduan.

Beren aitaren laguntzaz, eta pieza zaharkituak txukundu eta konpondu ostean, Kañamares anaiek aitonaen zerratoki zaharkitua lanean jartzea lortu zuten, baina zailena egiteko zegoen oraindik, ongi moztetik ikastea. Trontzarekin antzekotasunik baduela ezin da ukatu, baina desberdintasunak ere badira, arpana bera ere desberdina da, alde batean estuagoa eta bestean zabalagoa, eta bikotea osatzen duteneta-



Pello Kañamaresen semeak gustura ikusten ditu aita eta osaba zerra zaharrenekin lanean. ● JOSU SANTESTEBAN


tik bat goian eta bestea behean egoteak ere badakar aldaketarik; gainera, jatorrian hiru aritzen ziren zerra, bat goian eta bi behean. Zerratokia muntatu ondoren bi urte behar izan zituzten Kañamares anaiek bertara egokitzeko. Aitonaren arpan zaharra konpondu arren ez zuten lortzen behar bezalako mozketak egitea, baina gaztetan lan horretan aritutako 90 urteko gizon batek eta euren aitak lagunduta lortu zuten ongi moztetik ikastea.

«Konpontzea gehien kostatu zitzaigun arazoa desnibel arazo txiki bat izan zen, zerrak makinari modernoenak bezain lan zehatzak egin ditzake, baina oso delikatu da, zehatz-mehatz prestatu beharrekoa: pixka bat mugituz gero, ia ezinezko bihurtzen da mozteak; gainera, enborra ipintzeko orduan ere alde handia dago ipurdia alde batean edo bestean jarri. Gauza hauek denborarekin ikasten dira, ez hasi eta berehala», esan zigun Peio Kañamares, bi anaietako zaharrenek.

Kañamares anaiek galdutako lanbide hau kirol bihurtu nahirik berreskuratu zutenetik beste zerratokiaren bat jartzeko saioak ere egin dira. Honela, Bizkaiko herri kirolari batzuek ere euren zerratokia muntatu nahi izan zuten Kañamares anaien antzera, baina gaur egun kirol hau egiteko edo ikusteko zerratoki egoki bakarra Manuel eta Peio prestatutakoa da. Beraiek herriz herri eskaintzen dituzten erakustaldiez gain, herri kirolari asko ere euren baserrira joan izan dira proba egitera.

Txapelketarik ez

Gaur egun herri kirol bezala ezagutzen ditugunak eguneroko lanetan dute euren sustraia, eta Kañamares anaiek argi daukate zerrak ere merezi duela trontzak edo aizkorak duten txokoa. Baina aizkora, trontza zein harri jatzetako kirol izaera eman



Hasieran bizona egiten ziren batean; Nafarroako trontza txapelketan antziz gertatzen da. ● JOSU SANTESTEBAN

dituena txapelketak izan dira, eta Peio Kañamaresek ez du uste zerrarekin posible izango denik: «Zerrak duen zentzu guztia galduko luke denbora tartean sartuz gero, kontua ez litzateke nork azkarrago moztu oholak, nork hobeto baizik. Dena den hau ez da inoiz gure helburua izan, jendea galdutako lanbide bitxi bat erakustea baizik. Zerratokia berriz martxan jartzearen gauzarik pozgarrienetako bat oraindik honelakoei gogoratzen direnak esaten dizkizutenak entzutea da; duela gutxi, gaztetan Eli-

zondon lan honetan aritutako andoaindar batekin egon ginen, eta horrelakoei ahaztuta zegoela ere aitortu zigun».

Kañamares anaiek urte hauetan zerratokian saio ederrak egin dituzte, bai teknika ederra lortu ere; egin beharreko aldaketak ere egin dituzte, eta erakustaldietara aitonaen arpan zaharra eramaten badute ere, benetan lanerako ordua iristen denean Suediatik ekarritako altzairuarekin egindako arpan berria erabiltzen dute, lanerako askoz aproposagoa baita.

Erakustaldi ugari

Kañamares anaiek 12 urte daramatzate trontzalari lanetan. Ultzama aldean egin zen proba konbinatu batean parte hartu zutenetik ez dute herri kirolen mundua utzi. Hurrengo urtean Ultzaman Nafarroako Trontzalari Txapelketa jokatu zen, eta bosgarren postua lortu zuten bertan; harrezkero bost txapelketa irabazi eta lantzen txapelkunorde izan dira, azken lau urteetan Euskadiko Txapelketan ere txapelkunorde izan direlarik. Hala ere, herri kirolen munduan izen gehiegi ez zutenek, herri kirol talde bateko kideak dira, erakustaldi gehiago egin ahal izateko kirolariak elkartu egiten baitira.

Eta ezin dira kexatu Kañamares anaiek, Zurgai herri kirol taldearekin eginiko erakustaldiez gain, beste hainbat tokitatik deitzen baitituzte euren lanak egiteko. Normalean trontzan aritzen dira, eta zerratokia ere alde batetik bestera eramaten dute, baina Zurgai taldearen ikuskizunetan harrijasotzaileak, aizkolaria (Manuel Kañamares bera Nafarroako lehen mailako aizkolaria da), egurra atxurrarekin moztzen dutenak, txingalariek eta korrikalariek ere badaude.

«Oso ondo etortzen zaigu erakustaldiak egitea. Gure helburua txapelketetara ahalik eta ondoen iristea izaten da, eta erakustaldiak etxean egin beharreko entrenamenduen ordezko bihurtzen dira. Era berean, diru pixka bat irabaz dezakegu, entrenatzeko erabiltzen ditugun enborrak ordaintzeko behinik behin», baieztatzen du Peio.

Prestakuntza eta dopina

Gauzak asko aldatu dira herri kirolen munduan, eta lehen entzuten ziren harrijasotzaile eta aizkolarien saio osteko txuleta jate fatmatuek energia barreil utzi diete euren tokia.



Nafarroako eta Euskadiko trontza txapelketetan punta-punta ibiltzen dira Kañamares anaiek. ● JOSU SANTESTEBAN

«Zerrak makinari modernoenen zehaztasuna lor dezake, baina zehatz-mehatz prestatu behar da: pixka bat mugituz gero, ia ezinezkoa da ezer mozte».

Kañamares anaiek urte dezente daramatzate prestakuntza bereziak egiten, entrenamendu planaz gain dieta zorrotza jarraitzen dutelarik: «Urte batzuk egin ditugu sendagileen kontrolpean, baina orain geuk geure dieta kontrolatzea erabaki dugu. Janari batzuk ez probatzeaz gain, ordutegi zorrotz bat jarraitu behar dugu, eta tontakeria bat iruditu arren, energia barrek eta bitaminek laguntza handia ematen diote gaur egungo kirolariari, esfortzua egin ondoren indarberri-tzeko orduan batik bat. Asko zaindu behar da gorputza, gurea bezalako kirolari gantz puntu bat galtzeak betealdi bat ekar baitzake lanean hasitakoan».

Bitaminak, energia barrak, eta medikuen kontrol zorrotzek dopina ere burura ekartzen dute gaur egun, batik bat txirindularitza munduan azken denboraldian izandako istiluengatik, baina Peio Kañamaresek garbi du gai honen inguruan ezjakintasun asko dagoela: «Kontrol ugari pasatu behar izaten ditugu, irabazleek beti, eta besteen artean zozketa egiten da, beraz ez dut uste trapuerian dabilena denbora askoan ibiliko denik. Dena den, jakin behar da pomada ziztrin batek edota katarro bat sendatzeko hartutako jarabe batek kontrol batean positibo ematea ekar dezakeela, eta nire ustez garbi dago hauek ez direla kirol maila hobetzeko hartutako gauzak, alde horretatik kirolariak arazo handiak ditugu, hartu behar dugun guztia erabat ezagutu behar baitugu, eta hau ez da batere erraza».

Aitonaren lanbidea kirol mundura gerturatu duten bi aroztegitar hauek lanean jarraituko dute behintzat, abuztuan, zortzi egunen barruan, Nafarroako eta Euskadiko Aizkora Txapelketak (Manuelek), eta Euskadiko Trontza Txapelketa jokatu baitituzte, eta bitartean erakustaldiak han eta hemen, eta umeentzat bereziki prestatutako herri kirol frogetan maisu lanak egiten ere arloko dira.



Suediatik ekarritako altzairuarekin prestatu dute Kañamares anaiek arpan berria. ● JOSU SANTESTEBAN

→ Asier Legarda

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Jose Maria Estefania Zabala, euskaldunen maisu

Honen pean lasterrera hamar bat urterako doa Patxi Altuna euskaltzainak fraidekidea zuen Estefania aitaz izkiriatu eta apailatu zuen lana agertu zela; alta, bigarren lerroko eragile izanki, euskaraz ezer gutxi utzi zigularik, nahikoa oharkabean igaro zaigu; bihoa honakoa huts honen artatzera



ESTEFANIA AITA 1889.eko urriaren 28an sortu zen Bilbon. Honen aita, Adan de Yarza ber hiriko sendi ahal-dunaren ondasunen kudeatzaile egiten zuen lan. Batxilergoa bukaturik, eta Enrike bere anaiaren urratsei jarraituz, zuzenbide ikasketak hasi zituen Deustuko Unibertsitatean, alabaina,

1906/1907 ikasturtearen amaieran, ekainaren 14an hain zuzen ere, Loiolako fraidetxe haundian azaldu

zen josulaguna nahi zuelako. Josulagunai moduko lehenbiziko bi urtetan Orixe bera izan zuen etxekideen artean, eta harekin zeuden bestelako euskaldunek ere kitzikaturik, nonbait, euskara ikasteari ekin zion orduz geroz. Fraidegaiko bidaztiak, haatik, Loiolatik eta Euskal Herritik hasitandu zuen gehien batez: Burgos, Oña, Gijón, Orduña -honetan, lehenbiziko lehen-dakaria izanzen zen Jose Antonio Agirre bera izan zuen literatura ikasle 1918/1919 ikasturtean-, eta azkenik, teologია ikasketak borobiltzeko, Holandako Valkenburgera igorri zuten orden buruek 1921.ean.

Apez eta josulagun oso iritsi zen Europatik Estefania aita 1924.ean, eta bere gain utzi zuten lehenengo ardura Loiolan bete behar izan zuen, literatura eta latin katedratiko moduan. Urte haietan berekin ikasi zutenen artean Ibiñagabeitia, Zaitegi edota Lauaxeta zeuden, halaz guztiz, harrobi ederra zatekeenak labor iraun zuen, 1932.era arte, bada, urte hartan eta errepublikaren arau berriek eramanda, Belgikako Tournai

hirian kokatu zuten bizitoki berria Loiolako josulagunek. Gerrarekin, ordea, eta penintsulatik urrutit egonagatik ere, egoera geroz eta makurtzenago zen euskara zela eta, hortaz, eta beste askori agitu antzera, Estefania aitak ere Amerikaratzeko agindua jaso zuen 1937.eko udagorian, eta

kasle jardun zuen Estefania bere irakasle bizitza zinez labor osoan; arras ongi eza-gutzen zituen literatura nagusietako egilerik nabarmenenak, eta bereziki alemanierazko idazgintza zuen gus-tuko eta ezagun; alabaina, eta beste modutan izan ez zitekeen, bazterreko gail-nontzeko literaturak ere irak-sagai izan zituen, tartean



Nikaraguara joanik, San Salvadorreko ikastetxean ari izan zen literatura irakasle, ohiko moduan, 1942.eko urtarrilaren 10ean bertan zendu zen arte.

Gazte hil zen Estefania aita, gazteegia, alabaina horrek ez zion galarazi euskal kulturaren pisuzkoak izan diren eta diren hainbaten maisuarena egin izana. Fraidegai zegoela alpatua dugu Orixeren kidea izan zela, baita Loiolaniko garaian euskal idazle haundien irakasle jardun zuela. Nikaraguan zegoela, Zaitegirengandik hurbil izan zen, eta aurretik ere, Lizardi ezagutzeko parada izan zuen, Orixeren eskutik.

Olerkaria zen Estefania; batxilergoa egiten ari zela, Ramon Basterra olerkari bilbotarra lagun gaztea zuen, eta haiek biek astean behin bisitatu ohi zuten Frantzisko Iturribarria apez olerkaria. Burgosko nobiziaduan zegoela jada, kalitatezko olerkiak idatzi zituen, gazteleaz, baita ariketa moduan latinezko batzuk ere. Jada esana geratu den legez, literatura ira-


euskararena, eta, nola ez, Kataluniakoa zein Mistralen-gan nobel labelduna zen Okzitaniakoa.

Ez zuen euskaraz idatzi Estefania aitak, tajutu zituen le-rrro gutxiko hiruzpalau aha-paldi ez badira; Tournayen 1932.ean zegoela, «Egunabarra» izenburua duen olerki eskastua egin zigun: «Odei atzetik argiak dir-dir dago bigun / Ludi zabala ordea, ixil dago ta ilun / Biotz barruan olaxe, datza gogoa itun / Beti argiaz ameska eta argitik urrun». Aurrerago ere, eta Valkenburgeretik honela ziotsan bere aitari: «Erbestetik zure egunean / Txoritxu bat lez egazka / Nere au zure seme-biotza / Aita! Or doa zuegana».

Lerrotako euskara ez zaigu arrotz, eta Lizardi lagunak zerabilen antzerakoa dugu, euskal olerkari haundien ezpala berekoa. Numeroen aitzakiaz, euskal literaturan oraino sargarri gertatu ez bada ere, ez da zalantzarik gure Estefaniaren ekarpena nabarmengarri oso badela, olerkari haundiengan izan zuen eraginarengatik bakarrik ez bada ere.

etorri ahalean

Patziiku Perurena



Ura aditzen

GAUERDITIK AUERRERA doa. Etxeko eta auzoko jendea lo burgesak hartua dauka. Eta hona hemen ni, zure atseginerako idazten jarria. Sar nadin ene baitara. Ez dut deusik aditzen ilargipe isil honetan, egunez muturik joan den erreka ez bada. Eta gau isil askotan bezala, ur soinu hone-txek bete dit gogoa, eta uraz oroitu naiz bat batean, munduari hainbat atsegin eskaintzen dion iheslari xahar hone-taz. Zeinen gauza ederra, etxe ondoko erreka soinua!

Orain, uda gorrian, ikusten da inoiz baino hobeki, zer izan den ura gizakiontzako. Ohartu zarete, nola hurbiltzen den jendea uragana? Horra herriak, etxeak, domingeroak... beti urari buruz. Baita eguneroko lanean ere. Inguruan asko bezala, larre lanetan nabila atzenaldian, eta zer gauzaren ederra: lana utzi, eta atsedean hartuz, ur xirripa baten alboan esertzea, eskuak eta arpegia freskatu, tragoska bat egin, klik klik, eta hostapeko itzalean hozka batzuk zerozeri. Eguerdia bada eta ederrago: eguzkiaren tronupean mundu osoa geldi geldi, eta ur xirripa bere zilar bidean, zure belarria goxatuz, marmarika bere burutik, bizitzaren inoraezin xalo eta fina erakutsiz.

Aditu ditut musika eder askoak, baina ur soinuak haina nork goza ene barrena? Eta belarritz hainbat gozatzen nau begiz. Begira egiozu errekatto batean, uraren joairari, eta tankera bakoitzean bere soinua ateratzen dizu. Formaren soinu huts, soinuaren forma huts. Eta mila forma eta mila soinu beti xaharberrituz elkar, eta elkarren harmonian beti, horratx ura, zure atsegin huts-terako harri tartean behiti no-raezean jostari.

Badut aditzea, musikari haundi asko, orduak eta orduak pasatuak direla urari begira eta uraren xintari adi, bai-

na, seguru nago inork ez didala inoiz plajiatuko, Gorritzaran errekek, gaur bezalaxe, gauero ene belarrietara dakarkidan sinfonia anonimo honenik; ez eta Goizuetan umetan adituak, eta oraino ere, sarritan Arbiz-karko iturrian eta Tronpatako errekan adituko dudarik. Hori-xe da izadiak (zinezko bi-ziak) erakusten digun gauzarik ederrerenetakoa: inork plajiatu ezina, edo nahinolako sortzaile ber-rrion mozkeria harroa. Asmatu-ko ditugu munduan inoiz izan ez diren gauzarik ikaragarrie-nak, baina, sekulan ez gara iri-tsiko berez datozkigun sorkari iheskorron sekretuak jakitera.

Oi ura, uraren kristal soinu fin hori, gaueko ene arima ernatu nahian. Baina nere lagu-nik minenak ere ez dit sines-ten. Burgestu egin naizela uste du. «Orain hirugarren pisuko txalet batean bizi haiz, ez?» esaten zidan ironia mindu ba-tekin. Ez motel, Gorritzaran erreka sinfonia krudela adit-zen naukak orain ere. Ni mal-bizitu egin nauk beti etxe ba-rrenetan, nere izan edo beste-ren, apain edo itsusi, goi edo behe, bakartu edo pilan. Ez da-kik ongi, ez dakianez ongi!

Konforme. Etxe koskor polit bat, herri inguruan bakartua, «hau nerea da» esateko. Ez diat beste iraultzarik sumatzen inguru oso burgestuan. Zelebrea duk jendea! Etxe batean altxatu nahi dik bere ohorea, liberta-tea... Zenbat eta ederrago etxea, orduan eta libreago eta noblea-go uste jabeak. Aspaldi haundi-ko gaitza duk: izpiritu nobleak bidean gaitzen hasi zirenekoa.

Baina ez, ni etxez haruztik datorren ur soinu honetan bizi naiz. Beti eramanen dizut erre-ka koskor bat bihotzaren albo-an, erromes baten gramola idurikoa, etxe guzien morron-tzatik libratuko nauena. Nik ez dizkizuet aitaren etxe berriok defendituko, lasai. Ni etxe ero-riak animatzen dituen ur soinu haretan natorkizu eta noakizu, besterik ezinean.

Ziria

• Motxorrosolo •

Edonon, edonola, edozeinekin


BATZUEK HIRU HAMARKADA DARAMATZATE GISA BEREAN. GEHIE-nak hamaika urte kargudun. Nafarroa Garaian boto gehien bildu duten bi alderdiek berretsi duten akordioaren bermatzaile, bultzatzaile, kolpekari. Konparazio baterako, hainbat iturritatik edan duen Iruñeko Udalean kulturaz arduratuko denaren ibilbidea. Ez da kasu bakararra. Zizelaturiko belaunak, boterearen arrimoan laketu denarenak.

Iñaki Fernandez Iturbide

Festetarako kartel egilea

«'Hobby' hau lanbide bihurtzeak gosez hiltzea ekarriko lidake»

Arakil-Uharten duela 43 urte jaioa da Iñaki Fernandez Iturbide, eta Arren bizi da. Burlatako jailetako kartel lehiaketaren saria jaso berri du. Astebete lehenago, Zizur Nagusikoa jaso zuen. Sari biltze hau ez da berria, ordea, Iñakirentzat, 1990. urtean bere lanak lehiaketara bidaltzeko erabakia hartu zuenetik 70 sari baino gehiago irabazi baititu. Sanferminetako da Nafarroan falta zailon bakarretakoa, hori «mendizale bat Everestera iristea baino zailagoa baita» bere ustez.



• JOSU SANTESEBAN

AZKEN EGUNETAN EMAN BEHAR izan dituen elkarrizketek nazkatuta omen daukate jada. Ez omen du halako arretarik merezi; halere, ez da hitzak tiraka atera behar izaten zaizkienetakoa.

■ Zenbat denbora daramazu kartelak egiten?

1990ean hasi nintzen. Elbarriek zituzten oztopo arkitektonikoak zirela-eta antolatutako lehiaketa batera aurkeztu eta bigarren saria irabazi nuen. Horrek aurrera jarraitzeko adorea eman zidan eta horrela jarraitzen dut, nire aisialdian lehiaketa ezberdinetarako kartelak prestatuz; *hobby* ederra da.

■ Eguneroko *hobby*-a al da?

Bai, inauteriak eta herrietako jaiekin, lanari aurrea ezin harturik ibiltzen naiz.

■ Lanbide bihurtzeko modurik baduzu orduan, ezta?

Ez, gosez hiltzea ekarriko luke. Zaletasun bezala oso ondo dago, baina ez dut inoiz pentsatu honetatik bizitzea.

■ Bi lan aldi berean egitea gogorra izango da, ezta?

Bai, baina enpresako lana amaitutakoan kartelak egiteak ez du niretzako inolako nekakerik. Noiz edo noiz kalera irteten nahi eta etxean geratu behar izaten dut, lanak entregatzeko epeak direla eta, baina gainerakoan ondo daramat.

■ Kartelak bakarrik egiten dituzu?

Gehienbat kartelak egiten ditut, baina pinturan ere egin ditut saioak. Dena den, ez ditut pintura teknikak erabatean menderatzen; ez dakit lan bat noiz den ona eta noiz txarra, ez daukat ezaguera teorikorik. Kartelekin ezberdina da, segituan ikusten baituzu kartel bat garbia, mezuduna eta erakargarria den ala ez.

■ Baina pintura sariren bat ere irabazi duzu, ezta?

Bai, bakarra: Castejongo Trenbide Museokoa.

■ Aipatu ezaguera teorikoen faltak autodidakta zarelaren esan nahi du?

Bai, guztiz. 15 urterekin lanbide eskolan hasi nintzen, baina hilabete besterik ez nuen egin, lau ikatz-marrazki egin eta utzi behar izan nuen lanean hasteko. Zaletasunarekin jarraitzen gehien lagundu zidana ama izan zen. Berak bultzatu ninduen hau lantzerantz; margoak erosten zizkidan eta amonari ama birjinak margotu eta horrelakoak eginarazten zizkidan.

■ Nafarroaz kanpoko lehiaketetara aurkeztzen zara?

Bai, oinarriak nire eskura iristen badira beti saiatzeko naiz kartel bat bidaltzen. Aurten Irungo inauterietako lehiaketa irabazi dut, eta To-

«Hitz egiten ez dudan arren, garbi daukat euskara gure hizkuntza dela; horregatik jartzen dizkiet euskarazko izenburuak nire lanei»

ledon ere eman didate sari bat: iaz, Talavera de la Reina-ko lehiaketa irabazi nuen.

■ Diru sarrera ederra izango da orduan, ezta?

Ezin naiz kexatu, baina ez da hainbesteko: sari askoren kopurua anekdotikoa da.

■ Zertan oinarritzen zara zure lanak egiterakoan?

Herriaren ezaugarrien arabera alde batetik edo bestetik jotzen dut, ezaugarri esanguratsuenak hartu eta kartelean integratzen saiatzeko naiz.

■ Lanen tituluak euskaraz jartzen dituzu, ezta?

Bai, zoritxarrez nik ez dakit, baina seme-alabek zein anaiek bai. Gure hizkuntza

dela garbi dut. Euskararen aldeko nire ekarpen xumea da tituluak euskaraz jartzea.

■ Eskulanak dira zureak, ezta?

Bai, *collage*-a eta aerografoa erabiltzen ditut, baina gustatuko litzaidake ordenagailuekin lan egiten ikastea, beraiekin egindako lanen aurka lehiatzea zaila baita.

■ Dena den, sariak irabazten jarraitzen duzu.

Bai, baina miraritzat jo daiteke. Ordenagailuen kontra ezin daiteke ezer egin, eta ez diet meriturik kendu nahi, diseinua beti diseinu baita.

■ Zein helburu dituzu orain?

Nafarroan Lizarrako lehiaketa eta Iruñeko sanferminetakoak bakarrik geratzen zaizkit irabazteko. Oso zaila izango da horiek irabaztea, sanferminetakoak bederen, baina ez dira hil edo biziko helburuak. Irabazten badiut, hobe; bestela, lo lasai egiten jarraituko dut.

→ Asier Legarda

soslaia

Iñaki Fernandez Iturbide duela 43 urte jaio zen, Arakil-Uharten. Gogoan ditu oraindik bertan mendian pasatako egunak, baina 14 urterekin Iruñera joan zen. Arrotxapean eta Donibanen bizi ondoren, Iruñetik kilometro gutxitara dagoen herri txiki batean bizi da orain, Arren.

Autoen piezak egiten dituen enpresa batean egiten du lan, baina bere zaletasuna etxera iristean hasten du. Festetarako kartelak egin ohi ditu, eta kartel onak, dirudienek. 1990. urtean bere lanak lehiaketetara aurkeztu hasi zenetik, 70 sari baino gehiago jaso ditu Nafarroako zein kanpoko lehiaketetan.

Aurten alargundu da, eta seme-alabekin bizi da. Semeak 21 urte ditu, alabak 15. Festetako kartelak ez dira sinatzen, baina bere pintura lanak sinatzeko bigarren abizena erabiltzen du, Iturbide, Fernandez arruntzia iruditzen zaiolako.



Nafar Kronika

Mikel Beramendi

Merkealdietako abstentzioa

Sozialisten laguntzari esker Sanz diputazioburu dugu bigarren aldiz, eta berarekin gobernuan orain arte aritu diren gehienek ere segituko dute. Lehengoan gauden, beraz, Gurra, Palacios, Markotegi, Sanz bera... UPN-ren zentrisismoaren lekuko ditugu.

Estatuko bertze lurraldeetan erabiltzen den estrategia politikoak hemen baliorik ez duenez, UPNkoak, gehiengoa ez badute ere, lasai aritu daitezke hemendik goiti. Nahi dutena egin dezakete, *Ido facto* gehiengo osoa izanen dutelako merkealdietan erositako abstentzioari esker. Etorkizun ederra erregionalistendako, lau urte barru orain arte ezinezkoa zirudien 25 eserlekutik gorako marra gaindi lezaketelako, berriro ere sozialistek egiten duten ustezko oposizioari esker.

Hemengo egoera berezia dela eta, abertzaleek oso erantzukizun garrantzitsua dute, nafar gizartearen gehiengoa defendatuko duen oposizioko ardatza izan behar dutelako. Abertzaletasunak azken urteotako maldan beherako joera utzi eta ekaineko gorakadari eutsi diezaion jokamolde zabal, tinko eta argia behar da orain, inoiz baino gehiago. UPNkoen alternatiba bakarra abertzaletasuna dela erakusteko.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- ▶ **Altsasu:** Tango Quattro Argentinako taldea entzungai gaueko 22:00etan, Zelandin.
- ▶ **Lizarrak:** Jaiak direla eta [ILT, Malarians eta Aritzaren Sustrala taldeen kontzertua autobus geltokiaren atzekaldean, gaur 23:30etan. Bihar Flitter, Bad F-line eta Tanathos taldeen txanda izango da.
- ▶ **Baigorri:** Bihar 23:30etan Joxe Ripiau taldearen kontzertua.
- ▶ **Zangoza:** Astelehenean, Os Bambas da Capoeira Brasilgo taldeak euren musikak eta dantzak eskainiko ditu Arkuetako plazan, 21:00etan. Asteartean, Indiako Tapan Group taldearen txanda izango da eta asteazkenean, Ginea aldeko Nipa taldearena. Ostegunean Peio Serbielle Zuberoako abeslariak *Euskadi kanta* lur bere azken lana aurkeztuko du Karmengo elizan.
- ▶ **Iruñea:** Asteazkenean, *Wa be bará buré...a yorobá* izenburupean, umeentzako kontzertu didaktikoa Gaiarre antzokian, goizeko 11:30etan.

ERAKUSKETAK

- ▶ **Iruñea:** Munduko instrumentu tradizionalen erakusketa Ziadadelaren arma aretoan astelehenean osteguna arte.

ZINEMA

- ▶ **Atarrabia:** Astelehenean *Mulan* marrazki bizidunen filma ikus daiteke Bakearen plazan, 22:00etan. Ostegunean, toki eta ordu berean, Ron Underwoodren *Mi gran amigo Joe*.

ANTZERKIA

- ▶ **Atarrabia:** Asteartean Kollins clown taldeak *Kolinstarrak* saioa eskainiko du hiru eta hamar urte bitarteko umei zuzenduta. 18:30etan, Martiket igerilekuetan.

HITZALDIK

- ▶ **Iruñea:** Astelehenean hasi eta asteazkena arte, Ziadadelako arma aretoan, 19:00etan, musikaren inguruko hitzaldiak. Astelehenean *Musika afrikarrarekin bidaiatzen: Saffari na* Muziki hitzaldia, aste-

artean *Musika Afrikako herri batetan* eta asteazkenean *Erakustaldi baten soinuak*.

BESTELAKOAK

- ▶ **Mezkiritz:** Xoko elkartearen bertso afaria egingo da igandean. Bittor Elizagoien eta Estitxu

Fernandez ariko dira bertsoetan. Afaria gaueko 22:00etan izango da eta 2.000 pezeta balioko du sarrera txartelak.

- ▶ **Iruñea:** Asteartean musika tresna tradizionalak entzun ahal izango dira 11:00etan Ziadadelako arma aretoan. Umei zuzendutako saioa.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



A tola do monte.

Mendiko zoroa